

## JUAN SAN MARTIN

Mekola, 7-3.º Izqda.

EIBAR 10-7-64

Pierres Lafitte jaunari  
Ustaritz-ara

Adiskide:

Hone karta jasotzean, pentsatu zezake eskariren bat dala. Ta, zuk beti erakutsi didazun borondate onarekin jabeturik, ni Joan zuzenki muinara.

Joan dan illean Barcelona-n ibilli naiz ta, bertan nuen adiskide on baten bidez, cataluniar idazle batzuekin izan dut ar-ama. Oiek gure literatura ezagutzeko gogo bizia dute, ta solasaldi baten ondoren, euskal poesiaren antologia bat egitekotan gelditu ginen. Ta, berek egin berri dutenez Cataluniar poesi antologia bat, aren antzera nai laketu. Itz bitan, au da asmoa:

- a) Ogei urtetik onuntza idatzi diran poesiarik onenen antologia.
- b) Amaseitiki ogei olerkarira arte izan ditzazke. Bakoitzaren bost edo sei lanekin. Onenak izan ditzazke zerbaite goiako eta on-onak ez direnak zerbaite gutxiako. Orazte ori denak bildutakoan egingo litzake.
- d) Gaurkotasunezkoak aal dala. Ta, gainera, sozial kontukoak badira ote (sozial kontu onek ezta esan nai langilleeri buruzkoa bakarrik, baizik gizarteak berari loturik dituan prolenak baizik).
- e) Aukeratzin da olerkari bakoitzak post edo sei olerki bealdu bearko ditu, euskeraz eta erderazko itzulpenarekin. Mugazemendikoak gaztelera eta mugazortikoak prantzeraz. Gero aiek cataluniarara itzultzeko. *Fa, euskeraz eta cataluniaraz arreturiko dira.*


Badakit lan nekeze eskatzen dizudana, baina zerbait egin bearrean  
gera gure literatura ere erbesteetan aintzat artzeko, ta au ere bida bat da.

Bost edo sei adiskidoren laguntzarekin, muge-emendikoak, gutxi-gora-  
-bera, aukeratuak ditut, baina ortikoak ez ditut ezagutzen zuk aña, ta zure iri-  
tzi zintzoa nai nuke. Klasikoena ere zerbait ezagutu dagien, Orixo-rekin bate-  
an, Oxobi-ren lanen bat ere sartuko nuke, ta gainerakoak, nik ezagutzen ditu-  
danan artean Iratzeder, Salaberri, Mirande eta Erdozaintzi edo izan ditezke.  
Zer deritzozu ? Besterik ba-ote ? Irisarri (Iita Iraizoz) ez dakit or aldekoa  
dan, baina formaren aldetik oso atsegin dut.

Iratzeder-i beste gabe idatziko diot, dakidalako bera ere tarteko  
izango dala. Orrekin ez dut dudarik.

Zure berrien zain irrikitzen natzaizu. Eta, arren, bialdu zure  
iritzi ori.

Besarkadak,



D.O. Al beldin baduzu, bakoitxeruz zure bidu bildu.  
Jero uruk idazteko.


Sibar, 12-2-66.

Adiskide:

Hemen diiparkizu  
unurjo bitra nerako pasak.

Etxez-en daturan,  
unurbaik ez unurbaik ondoko jaso. Ez  
dat ezagutzen daturan hori Etxez  
ote? Baita ez dat ezagutzen Etxez  
hunen unurbaik laluk!

Restauración siberiana centralizada  
ahí de? *Agur*  
juan san martin



Mekola, 7-3.º - Teléfono 721612 - Elbar


Eibar, 1970-1-2.

Adiskide:

Jaure hartu dut autolo-  
giara ko bidali didazun lana.  
Jai ederra behetu, liburua  
manira zuzen datorra.  
Eskerrikas ko bihotzez.  
Aeg, tenete an igoriko

*diest liburari bat.*

*Agur*  
**juan san martin ortiz de zarate**




Mekola, 6 - 3.º izqda. - Teléfono 712612 - Eibar

P. Lafitte adrikiden:

Urteberri on!

Herris-n liburua honen  
aiparruntan bat eskertuko  
nizuke. Eskerrikasoa.

**juan san martin ortiz de zarate**



Mekola, 6-3.º Izqda. - Teléfono 712612 - Eibar



Juan San Martín

Mekoa, 7 - 3.º Izqda.

Elbar 1970-1-10.

Teléfono 721612

Pierre Lafitte jauna  
Ustaritze


Agur, adiskide:

Urte berri on !

Gaurko, egungo, eskual idazleen hizlaurko bilduma bat egiten ari naiz, eta, nere asmoak agertzen dituen orritto bat bialtzen dizut, zuk ere bertan parte hartzea nahi baldin baduzu (hala nahi nuke), bertan eskatzen diren baldintzen barnean lantxo bat gerta zaidazun. Berdán zait lehen beste nunbait argitaratutako lana bada ere. Eskual literaturaren zerbaiti buruzkoa bada, hobe; zeren gai hau guttik ikutuko bai dute.

Eskaria betetzen ez baduzu ere, egon lasai, Ez duzu ezertariko konpromisurik.

Aldez aurretik eskerrak agertuaz. Bihotzez,

A handwritten signature in blue ink, appearing to read 'J. San Martín', is written over a horizontal line. Below the line, there is a large, stylized, triangular flourish.

GAURKO IDAZLEAK

=====

( Hizluzko Bilduma )

Euskal alfabetatze taldekoak, Uhin berri poesi bilduma ezagutzearan, beren artean duten irakurgai premia gorria adieraziaz, hizluzko antologia bat eskatzen didate, euskera batuan egina.

Une honetan, Etxenagusiaren Euskal Idazleen Lorategia-z baliatzen dira, baina liburu honek bilduma bezala dituen alde onak ez omen dira aski, zeren euskera bateratu gabe egotetik aparte, idazleen zaté hautatuak diranez gero gaia eten da dute eta haria lotzerik ez denez, irakurleeri nekegarriago egiten zaie. Beraz, egoera honek, Etxenagusiarenari ezer kendu gabe (zeren euskera za harraren aldetik honek beti izango bai du bere balio handia), beste erabateko antologia eskatzen du irakurleeri era orokorragoak eskeini ahal izateko.

Beste era bateko antologia batekin pentsatzean, jakina, gaiaren alde tik behar duten osotasunez gainera, nahi gabe ere, euskera zaharretik alden du beharra dugu, Baina ez legoke gaizki gaurkotasuna ere, gaiak oraingo bizitzaren moldez eta pentsaeraz horniturik, Etxenagusiaren bilduma ederrarekin batean irakurkari aberastasun ugariagoa eskeintzeko.

Huntara, irakurgai bilduma izatetik aparte, historiaren kontestu barnean gaur egungo literatura gaztearen agiri bat izan daitekeana. Uhin berri poesian bezala, hau hizluz.

Asmu honekin, Euskal Idazleen Elkartetik hautatutako idazleen artikuluz edo ipuin laburrez egitea pentsatu dut; era berean batasunerako bideak indartzan lagundu ahal izango duelako. Oraingoz batasunaren eredu hartzerik ez bada ere, bidean ari geralako, horruntza abiatzen lagunduko du, eta hemendik urte batzuetara honen erara beste bilduma bat egin beharra izango da, gogoan dugun batasun hortatik urbilago izango dana.

Hau, idazle bakoitzaren artikuluz edo ipuin labur batekin hornitua izango da. Hori bai, deneri, dana dala, toki berdintsua oskeini nahi nuke. Eta lan bakoitzak norma hauek bete beharko ditu:

- 1 / Euskera batuan idatzia (Batura begira esan nahi da; hau da Mitxelena Arantzazun adierazi zituen normekin).
  - 2 / Artikulu oso bat edo naiz ipui labur oso bat, idazleari gogoko zaiona ( lehen argitaratua izatera, berdina da geroztik zer bait konpondua bada ere), edo naiz argitara gabea.
  - 3 / Neurria: Bitik lau folioren barnean, lerro baten hutsunea utziaz (a doble espacio esan ohi dana).
  - 4 / Gai librean. Ez dedila izan euskerari buruzkoa, zeren gai hau gehiegi erabilia da eta gainera antologia monotonian erortzeko harriskoa izango luke. Eta politika ikutzen duona - bada, izan dedila zentzuratik errez igarotzeko bezalakoa.
  - 5 / Lan bakoitza bere orjinalarekin eta beste kopia batekin bialia.
- Liburuaren azken orrietan idazle bakoitzaren fitxa labur bat joango da, bere bizitzaren eta idazlanen berri emanaz.

Juan San Martín

Mekola, 7 - 3.º izqda.

Eibar 1970-1-20.

Teléfono 721812 712612

Piarres Lefitte jauna  
Ustaritze


Adiskide bihotzekoa:

Hitz-leuzko antologia bat egiten ari naiz, hemen eratzen ditugun eskual alfabetatze taldeetan irakurgaitzat zerbituko duena, egungo idazleekin hornitua, eta zu ere idazle hautatuen arteko zaitugularik, bihotzez eskertuko nizuke lantxo bat bidaliko bazenida. Berdin zaigu lehen argitaratua bada ere. Izan bedi idazle hautatuaren gogozkoa.

Zalantza dut Eguerrietan ez ote nizun egin eskari bera. Hainbeste idazle direlarik hautatuak zombait pundutan nahastua bait nabil.

Alde hortako idazleren bati buruzkoa balitz zure idaz-lantxos, behar bada ongi litzaiguke hemengoeri horko idazleen berriak jakiteko. Adibidez, Gazteluzar edo beste norbait gogoko zaizuna. Dana dala, zure esku.

Aldez aurretik eskerrak emanez, bihotzez agurtzen zaitut.



**JUAN SAN MARTÍN**

Mekola, 6-3.º Izda.

Elbar 1971-10-8.

Teléfono 712612

Piarres Lafitte jauna


Uztaritze

Agur, adiskide:

Euskaltzaindiko azken bileran erran bezala, hemen igortzen dizut Arkitektura histegiaren laguntzarako J.M. Barandiaran jaunak gertatu kuestionarioaren fotokopia. Honea, galde nahi duzunei, aski duzu irudia erakustea, zerorrek izenik erran gabe.

Baita ere, igortzen dautzuk laster argitaratuko dugun HEGATSEZ (hizlauzko bilduma liburua, zure artikulua bat ere dakarrena) liburutik atera dudan hiztegia, ikus dezazun oraingo idazlea nola erabiltzen dituzten era berriko zenbait konzeptu, arkitekturarekin zer ikudia dutenak.

Zure zerbitzuko,



12-11-1975.

Piarres Lafitte jauna  
Utaritze

Ene jaun adiskidea:

Azken biltzar egunean erran nizun bezala, Justo Garate jaunak bere anaia Elias-i galde egin dio zuregandik bi ohar jasotzeko:

1) Dubarat eta Daranatz-ek elkar lanean egin dako lanen batean ia Euskal Herriko edo Biarnoko "ouvade" delakoari buruz zerbait errana duten. Eta hala balitz, titulua, orrialdea, argitalpenaren urtea eta erraten duen partearen fotokopia edo xerokopia ahalbaldin bada.


2) Bulletin des Sciences Historiques, M. de Ferussec-en zuzendaritzapean ateratzen zenaren XII. tomoko (1829) 24 eta 25 orrialdeen (Vinson, 761) xerokopia, compte rendu del concurs Volney delakotik hartuak ere nahi lituzke.

Bere VI Humboldtiana delako lanerako omen du, 500 orrialde inguru izango dituen libururako. Kostatzen zaizuna (xerokopiak) neronek ordainduko nizketzu, edo berdin da bere anai Elias Garate-ri igortzea. Hotel Ariznoa VERGARA (Guip.)

Dena dela, Justo beraren zuzenbidea hau duzu: J. Garate, San Lorenzo, 444. MENDOZA (Argentina).

Behar bada lan hau, zerorrek non aurkitu erraten baduzu, hori Museo Basque de lakoan Haritschelhar jaunak edo hemen gure Donostiako bulegoan (Diputazioko Bibliotekatik) behar denaren kopiak ateratzea egingo genuke.

Beste gabe, bihotzez agurtzen zaitut, ondoko egunak arte,



A1/28

Piarres Lafitte Jauna  
Uztaritze

Jaun agurgarria :

Azken batzarrean ez zaitut ikusi baina uste dut bizkor zabiltzala. Dena den, Buruxkak eskuratu dut eta hortik ageri zait lan ona egiten ari zerala. Zu beti xinaurria bezalakoa zaitugu, beti eten gabe gure herriaren alderako lanetan. Hala segi. Urte anitzez Jainkoak lagunduko ahal dizu, zeren guk hori nahi. Zure gordailua ez baita bereala agortzekoa.

Gutun honen egitekoa hau duzu. Hemengo (Donostiako) Ebangelistak 1828 Baionan Testamentu Berria argitaratu zuen Gañdor zenaren berriak jakin nahi dituzte. Nik hortaz, zuk aspaldi Euzko-gogoa-n (5-6 zenb., 1958, Olabideren omenez) eman zenuen "Biblea Euskal-Herrian" lanez aparte beste inun ez bai dut ezer aurkitu Gañdor-i buruzkorik ezer, deus, ez Vinsonen, ez Sorarrainen ezta ere J.Bilbaon. Zuk zerbaít gehiago bazenekí, Ebangelista horiek hau jakin nahi dute :

- Gañdor ea deitura den ala izenordea.
- Gañdor-en izen-deiturak.
- Non eta noiz sortu zen.
- Non eta noiz hil zen.
- Gurasoen izenak.
- - Gurasoen sorlekuak.
- Anairik izan zuen, eta baldin izan bazuen ea zenbat mutil eta zenbat neska.
- Anaietan zenbatgarrena zen.
- Ezkondua ala ezkongabea zen.
- Emaztearen izen-deiturak eta sorlekua.
- Zer ogibide zuen (zure lanean ulertu dut Beskoitzeko guarda zela).
- Beste idazlanik ote duen.
- Bera eta bere familikoen beste zorbait ohar, interesgarriak iduritzen ba zaizkitzu.
- Testamentu Berriaren (Gañdor-ek itzulitakoetarik) 4 aleren berri ba omen dute : 1 Belokeko Abatetxean, 1 Baionako Euskal Museoa, 1 Eugéne Goihenetche Uztaritzen eta 1 Hondarribiko Juan M<sup>a</sup> Olaizolak). Zure lanean aisa bilatzen zirela erraiten zenuen eta nik uste beste anitz ere izango direla hor zehar barreiaturik.
- Beste alerik ezagutzen baldin bada, non eta nork ?

Hori da guztia. Baina iduritzen zait ez dela guti. Guzi hau eta honen zatiren bat osatu ahal bazenu, iduritzen zait, Euskaltzaindiko batzar batean txosten bezala ematekoa dela, gero Euskera aldizkarian argitaratzeko. Honela, gure bibliografieta sartuaz joan da, zeren arrigarria badirudi ere , ez baitu izan inoizko aipamenik.

Ez dakit zerbaít gehitu ahal izanen duzun, baina dena dela, lasai har zazu, ahal duzunean betetzeko.

Beste gabe, urrengo batzarrean ikusiko zaitudan esperantzan bihotzez agurtzen zaitut,